



Zain dezagun "denona den etxea":
Banakako eta elkarteko ekintzak

Diócesis
de Vitoria



Gasteizko
Elizbarrutia





Zain dezagun "denona den etxea":
Banakako eta elkarteko ekintzak



Argitaratzailea: Gasteizko Gotzaindegia - Editorial ESET

Dokumentu honetan jasotako irudi eta aholkuak "52 keinu, aldaketa klimatikoaren aurka" argitalpenetik atera dira, IHOBek argitaratua, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritza.

Diseinua: Natalia Fernández Gil

Imprimatzailea: Gráficas Irudi S.L.

ISBN: 978-84-7167-178-3

D.L.:


Aurkibidea

Gotzain Jaunaren Agurra	1
Aurkezpena.....	3
A.- BANAKAKO EKINTZAK.....	5
1.a.- Energia eta ura	5
1.- Energia-kontsumoa	
2.- Gure bizi-eremuak klimatizatu	
3.- Ur-kontsumoa	
4.- Argi elektrikoen erabilera	
1.b.- Elikadura	8
1.- Hobeto erosi, gehiago kozinatu eta gutxiago jan	
1.c.- Kontsumoa eta hondakinak	9
1.- Erantzukizuna kontsumoaren aurrean	
2.- Hondakinak sortzearen aurrean	
3.- Hondakinen kudeaketa	
4.- Tresna elektrikoen erabilera	
5.- Etxetresna elektrikoen erabilera	
1.d.- Mugikortasuna.....	14
1.- Joan-etorri eraginkorrak	
B.- ELKARTEKO EKINTZAK	15
2.a.- Energia eta ura	15
1.- Lokalen mantenua	
2.- Ibilgailua konpartitu	
3.- Elkarte ekarpena planetari	
4.- Banaka nahiz elkartean egin daitezkeen ekintzak	
2.b.- Kontsumoa eta hondakinak.....	17
1.- Erantzukizuna kontsumoaren aurrean	
2.- Hondakinak sortzearen aurrean	
3.- Hondakinen kudeaketa	
4.- Ordenagailuen eta bulegoko tresneriaren erabilera	
2.c.- Komunikazioa eta ekitaldiak	18
1.- Apustu ekologikoen zabalkundea	
2.- Elkarte ekitaldiak	
3.d.- Liturgia ospakizunak	19
Amaiera	20

Aurkezpena

Honako agiri honen eskutik, "bizikidetzako ekologikoagoa" sustatu nahi da, horretarako ezinbestekoak diren bakarkako eta elkarteko ekintzak agertzeraz emanez. Askotarikoak dira ingurumenarekin, "denona den etxearekin", gure anai-arrebekin eta geure buruarekin adeitasunezko jokaera izateko ahalegina egitera garamatzaten arrazoiak. Handik eta hemendik egiten dira deiak azken urte eta hamarkada hauetan, gure jardunak klima-aldaketan gauzaten ari den ingurumen-krisia larriagotu ez dezan. Lehorteak, euri-jasak, uholdeak, ... dira gertakari global horren isla; eta planetako inguru txirotueta milaka edo milioika laguni bizimodua aurrera ateratzeko aukerarik gabe geratzea dakarkie. Klima-aldaketak, uztak suntsitu eta artalde eta gainerako abere-taldeak akabatzeaz gainera, lekuak bizi-baldintza egoki guztiez gabetzen ditu, migrazioen arduradun nagusienetako bilakatuz. Eta hemen, gure kostaldean, itsas mailak gora egingo du, eta euri-jasak izango dira baina maiztasun txikiagoz; ondorioz, lur-jausi eta uholdeen arriskua areagotu egingo da eta, berotze globalaren eraginez, lehorteak eta tenperatura altuak denboraldi luzez jasango ditugu. Lekuko bioaniztasunaren galera eta animalien eta landareen espezie inbaditzaileen hedapen gero eta handiagoa ahaztu gabe.

Gogora ditzagun aipatu berri ditugun deietako batzuk. Hauxe dio Frantzisko Aita Santuak "Laudato si" entziklikaren 14. zenbakian: "*Premiazko deialdia egiten dut munduaren etorkizuna eraikitzen dihardu-*



gun erari buruzko elkarrizketa berriari ekin diezaiozun. Denok elkartuko gaituen elkarrizketa behar dugu, ingurumenaren inguruko erronka, honen giza sustraiak, denoi dagozkigulako eta denongan eragiten dutelako zirrara". Elizbarrutiko III. Ebanjelizatze egitasmoa garatzean, 4. jardunbidean ("Fede aitortza eta gizarte konpromisoa samariar bezala") "*erantzukizun ekologikoaren*" (2. proposamena) aldeko apustua egiten da, "*giza ekologiarik eza*" (4. proposamena) antzemateaz gainera.

Ezin ditugu gutxietsi Nazioarteko Erakundeek (gobernuko nahiz gobernu kanpokoek), erakunde eta mugimendu ekologikoek, zientifikoek eta "gure planetaren osasun ekologikoaz" arduratzen direnek behin eta berri egiten dizkiguten deiak. Planeta ahularen iraunkortasunak, baliabide naturalen agortzeak edo gizon eta emakume guztien aldeko ardura solidarioak, ... ikusarazten digu geuk ere egia bihur dezakegula gure eguneroko bizitzan Frantzisko Aita Santuak "osoko ekologia" deitzen duena.

Kristauok ere nork bere "harri-koskorra ekar" dezakegu eta etorkizunari nolabaiteko baikortasun ekologikoarekin begiratu. Adierazi ditugun dei guztiek izadiaren eta giza bizikidetzaren nariadura-prozesuak eragiten dituen gizarte bidegabekeriaren aitortza eta salaketaren ondorio dira. Aitortza hau oinarritzat hartuta, pentsamendu sozial kristauak bere ekarpena egin dezake eta egitea dagokio.

Zehatz-mehatz, kristautasunak eta kristau bakoitzak, Jainkoaren borondatearen eta bizimodu osasungarrien araberako bizimoduaren alde egin dezake. Esperientzia espiritual (erlijioso) eguneroko eginkizunak artikulatzen dituen jardunbide aszetikoak martxan jartzen saiatzen da. Hain zuzen ere, barau egitea, abstenentzia, erromesaldia edo limosna, Jainkoarekiko eta lagun hurkoarekiko hartu-emanen garbitzeari begira jarrita daude. Laztasuna, eskuzabaltasuna eta soiltasuna bizitza espiritual integratuaren zeinu dira. Jardunbide tradizional hauek egundoko garrantzia dute larregi esplotatuta dagoen, baliabide mugatuak eta gizarte-ekonomia desberdintasun gero eta handiagoa dituen planetari dagokionez.

Kontsumismo konpultsiboaren, "bazterkinen" eta "erabili eta bota" kulturaren -ingurumen-nariaduraren eragilerik nagusienetakoa gizarte industrializatuetan- aurkako borrokan, tradizio erlijiosoek beren ekarpenik baliotsuena egin dezakete -eta egitea dagokien soiltasunera eta nork bere buruari eustera deituz, elkarte zientifikoak, enpresa-munduak eta klase politikoak nekez planteatzen baitute auzi hau.

Frantzisko Aita Santuak "Laudato si" entziklikan garatu zuen "osoko ekologia" deitutakoarekin bat datozen eguneroko jarduerak

aurkeztea du xedetzat agiri honek. Gure jarduerak hemengoak izango dira, baina oihartzun globalarekin, mundu-mailako oihartzunarekin.

Agiri hau, bi multzo nagusitan banatuta dago. Lehenengoan, gutariko bakoitzak gauza ditzakegun banakako ekintzak, ekintza partikularrak jasotzen ditu. Errazak dira, jabetzea, konturatzea eta jardunbide errazak baizik ez dituzte eskatzen. Bigarren multzoan, gure parrokia elkarteetan edota elkarte erlijiosotan gara ditzakegun ekintzak jasotzen dira. Egia da batzuek zein besteek elkar osatzen dutena, asko eta asko aldi berean egin daitekeelako.

Multzo bakoitza, gainera, lau ataletan banatuta dago. Atal batzuk multzo guztietan azalduko dira eta beste batzuk beren-beregi delako multzo bati egokituko zaizkio. Hitz batez edo biz izendatzen dira atalak. Gure ustez, hauek dira definitu beharrekoak:

- Energia: mugimendu, argi, berotasun, e.a., erara lana eragiteko duen gaitasuna, ekintza edo lana gauzatzeko edo aldaketa eragiteko.
- Elikadura: elikagaia hartzea izaki bizidunen aldetik beren beharrak asetzeko hornituz. Nutrizio ona (dieta nahikoa eta orekatua, ohiko ariketa fisikoarekin konbinaturik) funtsezkoa da osasun onerako.
- Hondakina: jabeak alde batera uzten duen, alde batera uzteko asmoa duen edo nahitaez alde batera utzi behar duen edozein substantzia edo gauza.
- Mugikortasuna: gure nai edo beharrak asetzeko lekuetatik aldentzen dituen distantzia zeharkatzeko inguru fisiko batean gertatzen diren pertsona eta merkantzien tokialdaketa edo joan-etorriak.

A.- BANAKAKO EKINTZAK

“Arreba honek [gure ama lurrak] garrasika dihardu Jainkoak bertan jarri izan dituen ondasunen arduragabeko eta gehiegizko erabileraren eraginez egiten diogun kalteagatik. Jabe bakarrak ginela, menperatzeko eta ebastekeo baimen mugagabea genuela sinetsita hazi gara. Bekatuak zauritutako giza bihotzaren indarkeria, lurzoruan, uretan, airean, bizidunengan antzematzen dugun gaixotasunezko zantzueta ere agertzen da. Horregatik, bazterketa gordina eta tratu txarrek jasaten dituzten behartsuenen artean zapalduetako eta suntsitutako gure lurra dago, «erdiminetan intzirika dagoen» (Erm 8, 22) izadi osoa”.


Frantzisko Aita Santua, Laudato si', 2. zenb.

“Denona den etxearekiko” (gure ama lurrarekiko) konpromisoa lau alderditan: energia eta ura; elikadura; kontsumoa eta hondakinak eta mugikortasuna.

1.a.- Energia eta ura

1.- Energia-kontsumoa

- **Ekintzen helburua:** Energia-iturri %100 berriztagarritik jadesitako energia elektrikoa kontsumitu. Bakarrik energia-iturri %100 berriztagarriko argindarraz hornitzen duten konpainia eta kooperatibak daude. Energia berriztagarriak berotasun-beharretarako ere erabil daitezke. Berogailu eta ur bero sanitariorako energia energia-iturri berriztagarrietatik lor daiteke, esate baterako, biomasa-kalderetatik, eguzki-panel termikoetatik edo instalazio geo-termikoetatik.





► Ekintza:

- Energia-iturri berriztagarrietatik datorren argindarra kontratatu. Bi bide osagarri daude horretarako: 1) energia-iturri berriztagarrietako argindarra kontratatu, eta 2) zuzenean, argindarra etxean sortu. Lehenengo aukerari dagokionez, nahikoa da energiaren merkaturatzeaz arduratzen den konpainiaz aldatu eta iturri berriztagarriez baliatzen den bat hautatzea; bigarren aukera lehenengoaren osagarria da eta sortutako energiaren autokontsumoa ahalbideratzen duen instalazio individual edo kolektiboa eskatzen du.

2.- Gure bizi-eremuak klimatizatu

► **Ekintzen helburua:** Klimatizazioa era arduratsuan erabili.

► Ekintzak:

- Termostatoa programatu, tenperaturari 19 eta 21 graduren artean eusteko.
- Gehienez 10 minutuz aireztatu.
- Berogailuaren tenperatura 60 gradutik gora ez erregulatu.
- Gauetz pertsiana eta gortinak ixteak beroa ez galtzen nabarmen laguntzen du.
- Landareak jarri etxebizitzetako eremu zabaletan (lorategiak, teilatu lauak, teilatupeak...).
- Leihoetan toldoak ipini.
- Etxebizitza kaleko airea freskoagoa denean aireztatu.
- Haizagailua erabili aire girotuaren ordez.
- Teilatu lauak itzala ematen eta airearen berotasuna kentzen duen teilatu berdea edo lorategia ipini, teilatuaren azaleraren eta inguruko airearen tenperaturak jaitsiz.

3.- Ur-kontsumoa

► **Ekintzen helburuak:** Ur beroa beharrezkoa denean baizik ez kontsumitu. Txorrotako ura kontsumitu.

► **Ekintzak:**

- Txorrotak itxi hortzak eskuilatzen edo bizarra mozten ari garenean, urik kontsumitu behar ez denean.
- 'Monoagintea' dagokion muturrean jarri, ur beroa ala hotza erabili behar den kontuan hartuta.
- Norbere ontzia, pertsonala, erabili urarentzat, erabili eta botatzeko edalontziak saihestuz.
- Taberna eta jatetxeetan txorrotako ura eskatu.

4.- Argi elektrikoaren erabilera

► **Ekintzen helburua:** Argiak eraginkortasunez erabili.

► **Ekintzak:**

- Argiak itzali, nahiz eta gelatik kanpo denbora gutxi eman behar.
- Ahal izanez gero, argiztapen naturala aprobetxatu.
- Horma eta sabaietan kolore argiak erabili, argiztapen naturala hobeto aprobetxatu eta argiztapen artifiziala murrizteko.
- Aondo, garaje eta guztienak diren eremuetan presentzia-detektagailuak jarri, argiak automatikoki piztu eta itzal daitezten.
- Ohiko bonbilla gorien ordez LED bonbillak ipini.



1.b.- Elikadura

1.- Hobeto erosi, gehiago kozinatu eta gutxiago jan

► Ekintzen helburua: Ondorengoak bete:


- Jakin: kontsumitzen diren elikagaien osagaiei eta prestaketaz irakurri eta galdetu.
- Erosi: bertako produktua, ekologikoa.
- Kontsumitu: sasoiko eta kalitateko elikagaiak.
- Kozinatu: produktu freskoak teknika erraz eta sanoekin.
- Konpostatu: zatiki organikoa eta etxeko zaborra bereizi eta egoki birziklatu.
- Landatu: loreontzian, terrazan, baratzean... laborantza ekologikoaren teknikak ezarri.

► Ekintzak:

- Hozkailua bete aurretik, arretaz begiratu zer jaten den eta erosketak egitera joateak klima-aldaketarako dituen ondorioez ohartu: Esate baterako, bildots-kiloa ekoizteak laranja-kiloa landatzea baino ehun aldiz gehiago kutsatzen du (CO2).
- Aberekien (haragia, arraina, e.a.) proteinen kontsumoa murriztu eta jatorri begetalekoak (egoskariak, zereal integralak, fruitu lehorrak, e.a.) gehitu. Haragia kontsumituz gero, ahal izanez gero, Euskadin ekoiztutakoa izan dadila, bertako abere-sektorearen garapenerako eta landa-eremuari eusteko; arraina kontsumituz gero, bertakoa izateaz gainera, arrantza-aparailu tradizionalak arrantzatutakoa eta kontsumituko den lekutik ahalik eta gertuen harrapatutakoa izan dadila.
- Bertoko produktuak, zirkuitu laburrekoak, gertukoak kontsumitu.



1.c.- Kontsumoa eta hondakinak



1.- Erantzukizuna kontsumoaren aurrean

► **Ekintzen helburua:** Kontsumo arduratsua burutu.

► **Ekintzak:**

- Bota baino lehen, konpondu.
- Produktu eta zerbitu ekologikoen, bidezko merkataritza eta merkataritza etikoko produktuen eta energia-eraginkortasun altuaren alde egin.
- Erabili eta botatzeko produktuei uko egin, beharrezkoak ez diren bilgarriak dituztenak alde batera utzi.
- Produktu jasangarriak, birziklatuak edo hondakin gutxi sortzen dituztenak oparitu.
- Erosketetan erabakiak hartzean ez jokatu bihozkadaz.
- Produktu bat erostean, bere iraunkortasunaz galdetu eta aldagai hau kontuan izan erosketa gauzatzean.
- Zentzuz erosi: Otorduak planifikatu, erosketa-zerrendak egin eta era oldartsuan ez erosi eta aurkezpen erakargarrien tentazioan ez jausi.
- Bertako produktuak erosi hurbileko dendetan.
- Fruta, barazkiak, hestebeteak, ozpinetakoak, egoskariak, fruitu lehorrak, gailetak, e.a., soltean erosi.
- Edariak, zukuak, jogurta, esnea, freskagarriak, kontserbak, e.a., beirazko botila edo po-tuetan erosi.



- Etorbizunari begira, isurpenak jaisteko aldetaren alde dauden enpresen produktuak erosi: Sarean ikertu eta ingurumena errespetatzen duten eta toxikoak ez diren produktuak identifikatzen dituen Europar Batasunaren etiketa ekologikoa bilatu, bonbilak, margoak, papera, garbigariak..., erostean eta baita hoteleko gela bat erreserbatzen denean ere.
- Edariak ontzi birziklagarrietan ez ezik berriro erabiltzeko ontzietan eskuratuz gero, hobeto.
- PEFC edo FSC baso-kudeaketa jasangarrian mendekotasunik gabeak diren zigiluez egiaztatutako zura eta baso-produktuak kontsumitu.
- Oporrak igarotzen diren inguruko produktu naturalak kontsumitu, lekuko artisautza erosi edo lurraldeko gastronomiaz gozatu, lekuko ekonomien arrakastan lagunduz.
- Oporrak etiketa ekologikoa duen ostatu turistikoan igaro.


2.- Hondakinak sortzearen aurrean

► **Ekintzen helburua:** Hondakin gutxiago sortu.

► **Ekintzak:**

- Erabilera bakarreko plastikozko poltsak erabiltzeari utzi, behin eta berriz erabiltzeko poltsa edo erosketarako orga eramanaz.
- Erabili eta botatzeko ontziteriaren orde, behin eta berriz erabil daitekeenaz baliatu.
- Erabiltzen ez dena eman: arropak, betaurrekoak,...
- Familiartearen egiten diren otordu eta jaietan erabili eta botatzeko materialik –plastikozko edalontzi eta platerak, paperezko ahozapiak,...- ez erabili.
- Eguberrietako apaingarriak material birziklatu edo berrerabilitakoekin egin.
- Eguberrietako zuhaitz naturala ondo zaindu, jaiak amaitzeaz batera, birlandatu ahal izateko.
- Alde bietatik fotokopiatu, inprimatu eta idatzi.





- Aurrebista aukeraz baliatuz ordenagailuko idazkiak aztertu inprimatzeko agindua eman aurretik.
- Kontaktuei, e-maila inprimatzea ezinbestekoa den ala ez pentsa dezatela eskatuz, sinadura elektronikoari oharra gehitzearen bidez, papera ez erabiltzeko ohitura sustatu.
- Euskarri informatikoa landu, barneko eta kanpoko harremanetan posta elektronikoaren erabilera sustatuz.
- Argazkiak gizarte sareen bidez konpartitu, eta ez inprimitu, eta merkataritza-korrespondentziako zerrendetatik kendu.

3.- Hondakinen kudeaketa

► **Ekintzen helburua:** Zaborra egoki kudeatu.

► **Ekintzak:**

- Etxean hondakin arruntak (paper eta kartoia, plastikozko ontziak eta beirazko ontziak) egoki bereizi.
- Kontserba-latak, nahiz eta koipetsu egon, kontainer horian sartu.
- Abere- eta begetal-jatorriko hondakin organikoak aukeratu eta bildu, eta kaleko kontainer marroira bota.
- Sakelako zaharrak birziklatu.

4.- Tresna elektrikoen erabilera

► **Ekintzen helburua:** Tresna elektriko edo elektronikoa eskuratu eta erabiltzean, bere energia-eraginkortasuna kontuan izan.



► **Ekintzak:**

- Etengailua duten konexio-blokeak erabili, tresnek 'stand-by' delako egoeran daudenen duten kontsumoa ezerezteko. Konexio-bloke deskonektatzean, bertara konektatutako tresna guztiak itzaliko dira eta horrek energia aurrezteka ekarriko du.
- "Energy Star" logotipoa duten ordenagailu edo monitorea eskuratu, ordenagailuak, konfigurazio zuzenarekin, geldirik dagoen uneetan, gutxiago kontsumitzen baitu.
- Erabiltzen ez denean, itzali eta deskonektatu.
- Tresna elektronikoen baterien kargagailuak tresnaren karga amaitzeaz batera kendu.



5.- Etxetresna elektrikoaren erabilera

► **Ekintzen helburua:** Etxetresna elektrikoak eraginkortasunez erabili.

► **Ekintzak:**

Hozkailua:

- Jateko prestatu berriei hozten utzi hozkailuan sartu aurretik.
- Jatekoak sartzean edo ateratzean, ahalik eta gutxien ireki atea eta bizkor itxi.
- Izozkailutik biharamunean kontsumitzeko jatekoen bat ateratzen denean, hozte-konpartimentuan desizoztu eta ez kanpoan.
- Hozkailua 5 gradutan eduki (haragi eta arrainen ingurua 2 eta 4 gradu bitartean) eta izozkailua -18 gradutan.
- Izozkailua beterik izan, besterik ez bada ere, urez betetako plastikozko botilekin.
- Hozkailuaren atzeko burdin sarean pilotutako hautsa gutxienez urtean behin garbitu.



Labea:

- Labea, egosketa amaitu baino 5 minutu arinago itzali.
- Atea itxita utzi.
- Edukiera ahalik eta gehien aprobetxatu.

Ontzi-garbigailua:

- Tenperatura baxuko eta denbora aurrezteko programak erabili.
- Ontzi-garbigailua guztiz beteta erabili eta gatz eta distira-emailearen deposituen kargamaila berrikusi.

Garbitzailea:

- Garbitzailea gomendatutako neurrien barruan ahalik eta gehien bete, eta ahal izanez gero, hotzean garbitu, arropa oso zikina izan ezik.

Lehorgailua:

- Ahal den guztietan, arropa kanpoan eskegi.




1.d.- Mugikortasuna

1.- Joan-etorri eraginkorrak

► **Ekintzen helburua:** Garraio ez motorizatuan, publikoan eta konpartituan egiten diren joan-etorriak lehenetsi.

► **Ekintzak:**

- Joan-etorriak oinez, bizikletaz edo garraio publikoz egin.
- Ahal den guztietan, autoa hartzeari uko egin. Nahitaez autoa erabili behar denean, gidatze eraginkorra izan: Lehen abiadura, bakarrik ibilaldiari ekiteko erabili, eta arin aldatu bigarrenean. Ahalik eta abiadura luzeenean ibili eta biraketa-abiadura baxuetan, abiadura-mugak errespetatuz eta pneumatikoak presio egokian izanik.
- Ibilgailu pribatua erabili behar izanez gero, erabilera konpartitua izan dadila.



B.- ELKARTEKO EKINTZAK

“Kristau espiritualtasunak, bizi-kalitatearen bestelako ulermena proposatzen du, eta kontsumoarekin itsutu gabe sakon gozatzeko gaitasuna ematen duen biziera profetikoa eta kontenplaziozko bizitza adoretzen du. Garrantzitsua da hainbat tradizio erlijiosotan –baita Biblian ere– agertzen den antzinako irakaspena eranstea: «Gutxi, gehiago da» delako uste osoa. Kontsumorako aukeren etengabeko metaketak bihotza oharkabetzen du eta gauza eta une bakoitza baloratzea galarazi. Aitzitik, errealitate bakoitzaren aurrean, baita errealitaterik txikienaren aurrean ere, soseguz aurkezteak ulermenerako eta norbere buruaren osotasunerako aukera gehiago ematen digu. Kristau espiritualtasunak soiltasunez haztea eta gutxirekin gozatzeko gaitasuna proposatzen du”.

Frantzisko Aita Santua, Laudato si’, 222. zenb.

“Denona den etxearekiko” (gure ama lurarekiko) konpromisoa lau alderditan: Energia eta ura; kontsumoa eta hondakinak; komunikazioa eta ekitaldiak eta liturgia ospakizunak.

2.a.- Energia eta ura

1.- Lokalen mantenua

► **Ekintzaren helburua:** lokalen isolamendua berrikusi.

► **Ekintza:**

- Elkartearen lokalak egoki isolatu: hormak, leihoak, teilatua, zorua, ur beroaren deposituak, berokuntza zentralaren hoditeria, erradiadoreen atzean aluminiozko papera ipini.

2.- Ibilgailua konpartitu

Ibilgailua da, alde handiarekin gainera, garraiatutako pertsona bakoitzeko energia eta leku gehien kontsumitzen duena; kontaminazio –akustikoa nahiz atmosferikoa– gehien eta istripu gehien eragiten duena. Eta ingurumenaren gaineko eragina are eta larriagoa da, gehienetan erdi hutsik joaten direlako. Automobilaren gehiegizko erabilerak, gainera, garraio publikoen funtzionamendu eskasa eta ez motorizatuen galarazpena dakar.



► **Ekintzen helburua:** Automobila era jasangarri eta arduratsuan erabili, konpartituz eta energia berriztagarriak kontsumitzen dituzten motor elektrikoek aldeko hautua eginez.

► **Ekintzak:**

- Isurpen-ziurtagiri onak dituzten ibilgailuak erabili.
- Kontsumo baxuko ibilgailua aukeratu. Ibilgailu-fabrikatzaileek erakusketa-geletan eta publizitatean beren produktuen CO₂ emisio-maila eta erregai-kontsumoa erakusteko obligazioa dute.

3.- Elkarte ekarpena planetari

► **Ekintzaren helburua:** CO₂-aren isuria zuhaitzak landatzearen bidez orekatu.

► **Ekintza:**

- Basoen mantenuan lagundu, GKEek burutzen dituzten basoberritze-egitasmoak babestuz edo lekuko ekimenetan esku-hartuz.

4.- Banaka nahiz elkarte egin daitezkeen ekintzak

- Energia berriztagarrien aldeko apustua (5. orrialdean azaldutako ekintzak)
- Argi elektrikoek erabilera (7. orrialdean azaldutako ekintzak)





2.b.- Kontsumoa eta hondakinak

Gure parrokia elkarteetan, elkarte erlijiosoetan, e.a., atal honetan jardunbide pertsonal egoki bezala aipatutako ekintzak eta helburuak ezar ditzakegu. Hona hemen batzuk:

1.- **Erantzukizuna kontsumoaren aurrean** (9. orrialdean azaldutako ekintzak)

2.- **Hondakinak sortzearen aurrean** (10. orrialdean azaldutako ekintzak)

3.- **Hondakinen kudeaketa** (11. orrialdean azaldutako ekintzak)

4.- **Ordenagailuen eta bulegoko tresneriaren erabilera**

► **Ekintzaren helburua:** Energia-erabilera eta materia suntsikorren zarrastelkeria murriztu.

► **Ekintzak:**

- Monitorearen distira maila ertainera jaitsi.
- Ordenagailua programatu, ordubetik gorako etenaldietan gera dadin eta pantaila 15 minututik gorako etenaldietan gera dadin. Ordenagailua itzali lanaldiaren amaieran.
- Tresna elektroniko guztiak energia "aurrezteko eran" konfiguratu.
- Bulegoko tresneria (boligrafoak, itsasgarriak, plastikozko karpetak, e.a.) kopuru handian ez erosi, ale asko alferrik gazten baita.
- Inprimagailu eta fotokopiagailuen kartutxo eta tonerrak tinta ekologikoa duten kartutxo eta tonerrez ordezkatu. Tonerrak birziklutzerara ohitu.

2.c.- Komunikazioa eta ekitaldiak

1.- Apustu ekologikoen zabalkundea

► **Ekintzen helburua:** Argumentu sendoak erabili, klima-aldaketa badela ikusarazteko. Argumentuak patxadaz azaldu, baina argi eta garbi eta ziurtasunez.

► **Ekintzak:**

- Jarduera onak hedatu.
- Klima-aldaketaren aurka egiteko balio duen edozein agerkeri edo ideia hedatu gizarte sareen bitartez.



2.- Elkarte ekitaldiak

► **Ekintzen helburua:** Ospakizun jasagarriak antolatu, hau da, ingurumenaren gaineko balizko zirrara negatiboak minimizatzeari begira eratu, antolatu eta burututako ekitaldiak egin. Euskadin, 'Erronka Garbia' deitutako ingurumen-jasagarritasunaren ziurtagiria dago ekitaldietarako. Ziurtagiri hau, barruan nahiz kanpoan ospatzen diren askotariko ekitaldiei ezar dakieke, hala nola, biltzarrei, hitzaldiei, jolas-jardueri, kirol-ekitaldiei, musika-jaialdiei, herrietako jaiei...

► **Ekintza:**

- Ospakizun jasagarriak egin, horiek garatzeko ezinbestekoak diren energia, ur eta baliabide naturalen kontsumoak minimizatuz eta ahalik eta gehien murriztuz berotegi-efektuko gasen emisioak, hondakin-uren eta etxeko hondakinen eta hondakin arriskutsuen isurpenak.



3.d.- Liturgia ospakizunak

Liturgian eta sakramentuetan erabil daitezzen produktu guztiek (ogia, ardoa, ura, pazkozuzia, olioak, intsentsua, ikatza, e.a.) ahalik eta kalitate eta osotasun handiena izango dute, hain zuzen ere, beren garrantziaren arabera. Jatorri naturalekoak hobeto egokitzen dira ospakizunen duintasunera.



AMAIERA

*“Luzaroan, aurrerapenean eta giza gaitasunean konfiantza irrazionala jarri ondoren, gizartearen zati batek kontzientziatze handiagoko aldiari ekin diola ematen du. Gero eta sentiberatasun handiagoa antzematen da ingurumena-
rekiko eta izadiaren zainketa-
rekiko eta gure planetari gertatzen ari zaionaren inguruko kezka zintzo eta mingarria ere haziz doa. Azter ditzagun, ahalik eta zehaztasun handiagoz, gaur egun kezka eragiten diguten eta dagoeneko alfonbra azpian ezin gorde ditzakegun auziak. Helburua ez da informazioa biltzea edo gure jakin-mina asetzea, arazo mingarri honetaz jabetzea baizik, munduari gertatzen zaiona norbere sufrimendu bihurtzea eta, horrela, bakoitzak zein ekarpen egin dezakeen aitortzea”.*

Frantzisko Aita Santua, Laudato si', 19. zenb.

